

KONTROL MOZIOA

ETXE KALERATZEEN AURREAN DONOSTIAKO UDALAK HARTU BEHARREKO JARRERA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urtarrilaren 14an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko abenduan Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Gorenak argitaratutako datuek honako errealitate hau agerian uzten dute: Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren lau etxe-kaleratzeetatik bat alokairua ordaindu ezin izateagatik da. Gainera, 2018ko azkeneko hiruhilekoan eman diren 231 etxe-kaleratzeetatik % 16 soilik izan da exekuzio hipotekarioaren emaitza. Hau da, gero eta familia gehiago kaleratzen dira ezin delako alokairua ordaindu.

Egoera hau ez da bitxia suertatzen, alokairuaren batez besteko prezioari erreparatzen badiogu: 1.248 euro hilean Donostian (abenduko datuak). Aldi berean, lan-merkatuaren prekarizazioak zeharo zailtzen du etxebizitza bat modu egonkorrean ordaindu ahal izatea.

Donostiaren kasuan, Udalak protokolo bat sinatu zuen Stop Kaleratzeak plataformaren eskutik, gure hirian gertatzen diren etxe-kaleratzeen aurrean hainbat neurri martxan jartzeko. Neurri horien artean, Gizarte-ekintza eta Etxegintza sailen arteko lankidetzak jasotzen da, kale gorrian gelditu behar den familiari edo norbanakoari etxebizitza alternatiba bat eskaintzeko.

Gauzak horrela, 2018ko abenduaren 14an, Stop Kaleratzeak plataformak salatu zuen gure hiriko familia bat (bikote bat hiru seme-alabekin) kaleratua izan behar zela Zorroaga Fundazioan alokatutako etxebizitza batetik. Hori dela eta, plataformak bi eskaera aurkeztu zituen idatziz Donostiako Etxegintzan (2018ko irailaren 11n eta 2018ko azaroaren 30ean) baina urtarrilaren 7an, oraindik ere, ez zuten erantzunik jaso eta kaleratze prozesuak aurrera jarraitzen du.

Delegatuak batzordean adierazi digu kasu honetan ez dela Etxegintzaren bitartez inongo ekintzarik martxan jarri, Zorroaga Fundazioaren arazoa delako eta bertan akordio batera iritsi direlako familiarekin. Gainera, delegatuaren hitzetan, Stop Kaleratzeak eragileari erantzun bat eman zaio. Baina, urtarrilaren 15ean elkarteak berriro adierazi du, erregistratutako idatzi baten bidez (199-1275), ez dutela erantzunik jaso eta familiaren egoera ez dagoela konponduta. Esate baterako, idatzian honako hau adierazten dute: *en el juicio verbal se ha propuesto la suspensión del procedimiento durante 60 días, al objeto de que este Ayuntamiento le proporcione una alternativa habitacional antes de ser fijada la nueva fecha de desahucio*. Beraz, delegatuak esandakoaren kontra, ez dago akordiorik eta etxegabetzeak aurrera jarraitzen du. Eta begien bistakoa da, protokoloak dioenaren aurka, ez dagoela inongo lankidetzarik Etxegintza eta Zorroaga Fundazioaren artean.

Alde batetik, gure taldeak ezin du ulertu nolatan bultzatzen den adin txikikoak dituen familia bat kaleratzea, ikuspegi soziala duen fundazio batetik, non alkatea lehendakaria den.

Bestetik, ez dugu bat egiten Etxegintzaren isiltasunarekin. Hain zuzen ere, kaleratzeen aurkako protokoloa sinatzearen helburuetako bat izan zen udal baliabideak erabiltzea familiei bigarren aukera bat emateko eta kasu honetan ez da aukerarik eskaini. Gainera, gogorarazi nahi dugu aurreko legegintzaldian martxan jarritako protokolo baten arabera (aho-batez onartua izan zena) Donostiako Etxegintzak kasu hauen egoera aztertu beharra duela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko familia bat edo norbanako bat etxetik kaleratua izan behar dela jakiten duenean, haren egoera azter dezala eta, kale gorrian gelditu ez dadin, behin-behineko etxebizitza aukera bat eman diezaiola.
- 2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, parte hartzen duen fundazio eta sozietateetan etxe-kaleratzeen aurrean jarduteko protokolo baten garapena bultzatzea, kasu hauen aurrean izan beharreko ikuspegi soziala txertatuz eta aukera berdintasuna bermatuz (kasu guztiak berdintzeko neurriak ipiniz).

Donostian, 2019ko urtarrilaren 16an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia